

KONPAINIAREN JAKINARAZPENA



Fagor Etxetresna Elektrikoak, Koop. E-ak gaur aurkeztu du, Donostiako merkatzaritza arloko epaitegian, hartzekodunen borondatezko konkurtsoa, berregituratze plana abian jartzeko ahalbidetuko lukeen finantzazio-akordioa lortu ez izanaren ondorioz. Datozen egunetan aurkeztuko da hartzekodunen borondatezko konkurtsoa Taldeko beste sozietate filialentzat.

Erabaki honekin burutzen dira, arrakastarik gabe, Mondragon Korporazioarekin, instituzio publikoekin, inbertsio-fondoekin, erakunde finantzarioekin eta sektoreko beste konpainia batzuekin izandako negoziazioak.

Une honetatik aurrera, epaileak izendatuko duen konkurtso-administratzaileak zehaztuko du enpresak hartzekodunekin hitzarmenen bat lortzeko bideragarritasunik duen edo, aitzitik, likidazioaren bitartez konpromisoari aurre egiteko formula eta epeak zeintzuk diren.

"Bihotzez sentitzen dugu enplegatuen, bazkideon eta hartzekodunen interesak babestuko lituzkeen jarduera produktiboarekin jarraitzeko bezainbesteko finantzaziorik eskuratu ezin izana" -adierazi du kooperatibako zuzendari orokorrak, Sergio Treviñok- "hala egin baitugu gure historiako 50 urte luzeotan, beti ere, gure enpresa-izaeraren zutabetzat hartuta geure ingurunean enplegua, aberastasuna eta garapen soziala sortzea".

Para cualquier información, póngase en contacto con:

Burson - Marsteller

Comunicación Fagor Electrodomésticos

Olga Casco Olga.casco@bm.com

Nagore Larrea Nagore.larrea@bm.com

T. 91 384 67 00